



ZEURE UDALAK INFORMATZEN  
[www.laudiokoudala.net](http://www.laudiokoudala.net)  
[www.ayuntamientodellodio.net](http://www.ayuntamientodellodio.net)

# ZUIN



Laudio **Llodio**

LAUDIOKO IBAR NOBLEAREN UDALA  
AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE DE LAUDIO/LLODIO

2. hamabostaldia. Martxoaren 2012 444 Zk. Ale kopurua: 8.000

## Txerrikiak eta gure herriko jatetxe eta tabernetako berrikuntzak izango dira martxoaren 17an, 18an, 24an eta 25ean egingo den Pintxo lehiaketako ardatz

Martxoaren 17-18an eta 24-25ean dastatu ahal izango dira 1,20 €pintxoko prezioan eta 12:00 - 15:15 arte eta 19:00etatik aurrerako ordutegian (domeketan eguerdiko ordutegian bakarrik) aurtengo Laudioko pintxo lehiaketarako prestatutako 2 kategorietako pintxoak: txerrikiak eta berritzailea. Honako hauek dira parte hartuko duten establezimenduak eta bakoitzak proposatutako mokaduak:

**OSTALARITZA ESTABLEZIMENDUA: TXERRIKIA - BERRITZAILEA.** **Bonaire:** Sorpresa iberikoa - Bonaire Milahorria. **El Valle:** Terencio - El Valleko izarra - Gluten gabeko pintxoak: Patata eta bakailao milorria, pikilo piper kremaz. **Batzoki:** Odoloste bonboia almendraz, piku piperrren saltsa ohatzean - Konfitea pasa eta berduratxo, pasta filoan. **Ametsa:** Iberiar sekretuko piruleta, marrubizko txukrutxez, mango mouselina ohatzean, bierzo txorrotadaz eta piñoi deshidratatuekin - Edulisen mamia, trufa beltzen basoko fruituen usainaz txakoli erara (Zeliakoentzako gai). **Ertza:** txerriki barbakoa - Itsasoko lorea. **Ederki:** \_ - Ederki Bakailao Gutizia. **Arrañope:** Iberiar masailekoaren lasaña patata pureaz oliba olio

eran eta erremolatxa kurrugariz - Arrantzailearen egunsentia. **Kafe Plaza:** Odoloste sumendia piperadaz - Kalaba ketuzko coctaila, gazta gutuziaz. **El Túnel:** Iberiar masailekoaren milahorri pastela - Itsaso gorriko txapiroia txakolinaren izozkiz. **Lauri:** \_ - txaloak. **Iluntze:** Ugarteko Dorrea - \_ **Irilanda:** Solomotoxa bere espresioan - Turuleto. **Araba:** Kalabazatxo eta gazta perril kurruskaridun lasaña - Guladun entsalada epela. **Gozo Toki:** Toki lomo - Gozotada. **Gorbea:** Iberiar gutuzia ahuntz gaztaz, sesamoa eta kipula karemelizatuzko ukitu batez - Izokin marinatua aguakate krema ohatzean. **Ilargi:** Terriki solomotoxa hondoen krema erara, Modenako ozpinaz - txanpiñoia, otarrainskez betea, labe erarako berakatz maionesaz. **Azoka:** Azoka Gozoa - \_ **Blanco:** Odoloste hostopila - Blanc@ko gutuzia. **Kalúa:** txerri txampi - Kalua Oilaskoa. **Aldatz:** Solomotoxa kalabazaz eta ezti-ur ukitu batez - Orriamiak bakailaoz beteak gaztaz. **Kapritxo:** Odoloste, ondo eta foie Kapritxo - Orein eta txokolate karameloa. **Centro Castellano Leonés:** Patooak eta txerri hankak (Zeliakoentzako gai) - Handiena. **Gorka:** txerri solomotoxa foiez eta sagar kare-

melizatuz - Ikurriña. **Karrika:** Untzigain - Karrika. **Casa del Pueblo:** Odolostearen kausera kipula konfituran - Galiziar eran irabiatutako olagarro kanapea arrautza harilkatuaren gainean. **La Viña:** \_ - Gilda tradizionala bere xukuan ogi xigortuaren gainean. **La Avenida:** Tomasaren tinbala - Pasio borobiltxoak - Gluten gabeko pintxoak: Bakailao ketu gutuzia. **La Unión:** Pintxo La Unión - Bikaina. Aurreko urtean bezala, epaimahai profesional bat izango da herri bozketarekin batera: bozkatu ahal izateko, ale honetan agertzen den kupoia bete beharko duzue eta horrekin batera bost taberna desberdinetako zigiluak bertan jarri. Zigilu horietako bat behintzat herrigunean ez dagoen taberna batekoa izan beharko da. Lehiaketak irauten duen bitartean parte hartzen duten tabernetan jarritako buzoietan zuen kupoiak sartu beharko dituzue. **Lehiaketa honetako veste batzuk:** Laudioko Udala eta Deia. **Lehiaketaren inguruko informazioa:** [www.laudiokoudala.net](http://www.laudiokoudala.net) eta [www.laudiogapenagentzia.blogspot.com](http://www.laudiogapenagentzia.blogspot.com)



## MARTXOKO AGENDA

### Hilak 23:

- Aiarako 3. adinekoen topaketak
- 18:00 Agroekologiari buruzko hitzaldia balio anizdun aretoan
- 19:30 Berakatz sopari buruzko jardunaldiak Gastronomía Museoan

### Hilak 21 y 27:

- Sexu eta dependentziari buruzko hitzaldiak Kultura Etxean

### Hilak 24, 25 eta 31:

- 17:30 eta 20:00 Audio Top Zinema LHulan

### Hilaren 25a arte:

- Egun bat arrantzan erakusketa Kultura Etxean

### IKUS 1. ORRIA:

- 2012ko pintxo lehiaketa

### IKUS 3. ORRIA:

- Euskararen inguruko hitzorduak
- Odol emateak
- Zuzeneko kontzertuak Drumgorrin
- Baisalaren zitak

### IKUS 4. ORRIA:

- Hirugarren adinekoentzako zitak
- Eamkumeen nazioarteko eguna dela eta antolatutako hitzorduak
- Gaztelekuko zitak

**ETA GOGOAN IZAN...**  
[www.laudiokoudala.net](http://www.laudiokoudala.net)  
**web gunean are informazio gehiago**

## Kontsumo agroekologikoari bai!

Nekasarea proiektuak, sentsudun produktu agroekologikoak kontsumitzera animatzen zaitu. Ingurumenarekin arduratsuago den elikagaien ekoizpen eta kontsumoaren eta pertsonen osasunaren aldeko apustua egin nahi eta bidezko prezioak eta gure nekazari eta abeltzainen lana goraiatu nahi baduzu, zator eta informa zaituz. Martxoaren 23an, arratsaldeko 18:00etan eta Herriko plazako balio anitzeko aretoan agroekologiari buruzko hitzaldia egingo da. Bertaratzeko aukerarik ez baduzu, jaso informazio gehiago hurrengo hauetan: Udaleko Garapen Agentzian, 94 403 4980 telefonoan edo [desarrollorural@audiokoudala.net](mailto:desarrollorural@audiokoudala.net) helbide elektronikora mezu bat bidalita.



## PINTXO LEHIAKETAREN SARIAK

**Botoa ematen duten guztien artean honako sari hauen zozketatuko dira:** Piza pare bat, Telepizzak eskainita. Arabar Errioxako 5 kutxatila ardo Bebidas Serranok eskainita. Eguzkitako betaurrekoak, Luyando Opticos eskainita. Oinetakoak eroterakoan, 20 €beherapen txartela, Antxaber Oinetako dendak eskainita. 2 pertsonentzako asteburuko menu afaria, Balintxaerreketa Jatetxeak eskainita. Elikagai produktu ugari duden erloa, Hornidura

Plazako dendariak eskainita. Zozketa irabazleen arteko baten pizua garagardotan eta Errioxako Alcorta Upategiei bisitaldia, Rodmat Exclusivasek eskainita. 2 kirol artikuluak, Olympus Kirolak dendak eskainita. Koadro bat, Bautista Muebles y Decoraciones eskainita. 1 asteko ogia doan, Otarte Okindegiak eskainita. 3 botila txakolindun 3 kutxatila, Beldio txakolinak eskainita. 2 pertsonentzako 2na bale edo balio txartel, 14 pintxo/pertsonako

dastatzeko, ostalaritza establezimendu parte hartzaileek eskainita. Eguzki betaurrekoak, Luyando Opticak eskainita. 20 €ko 3 eroketa balio-txartel, Apill-ek eskainita. 5 estutxe arabar txakolidunak, Arabako txakolinak eskainita. Bisitaldia Errioxan Heras Cordon upategi eta mahastietara, bazkariak eta kutxa bat ardo oparia barne, Heras Cordon Upategiek eskainita. Produktu sorta bat Aiaratur eskainita

## Berakatz sopa egiteko eta dastatzeko jardunaldia hilaren 23an, Euskal Gastronomía Museoan

Datorren barikuan, martxoak 23, arratsaldeko 19:30etatik aurrera, berakatz sopa egiten jakiteko eta dastatzeko aukera luzatuko duen jardunaldia egingo da Euskal Gastronomía Museoan. Hitzorduarekin bat egin nahi duten guztiek, sarrera doakoa izango dela, eta berakatz soparen bultzatzaile eta, azken finean herriko gastronomiari bultzada eman dion gizon bat omenduko da... Euskal Gastronomía osoaren mesedetan!



## Sexu heziketari eta dependentziari buruzko bina hitzaldi audioar Kultura Etxean

Solastiarrek, Emakumeen promoziorako elkarte kulturalak sexu heziketari buruzko hitzaldia antolatuko du datorren martxoaren 21ean, arratsaldeko 16:30etatik aurrera. "Hazkunde erotikoa" dei-

turiko hitzaldia, Emaize sexu zentzuro kide Ana Ramirez Ocarizek eskainiko du Kultura Etxeko bosgarren butaka aretoan, Sarrera libre eta doakoa. Halaber, Solastiar, Avillo eta Jaka-

randa elkarteek dependentzia afektiboari buruzko hitzaldia antolatuko dute martxoaren 27an, arratsaldeko 16:30etan Kultura Etxean. Herritar guztientzako hitzordu irekia.

## Eskualdeko museo desberdinetarako bisitak eta Reforreko bazkaria, Aiarako 3. adinekoen XIII topaketetako gutizia nabarietak



2012ko martxoaren 23an, Aiara Eskualdeko hirugarren Adineko pertsonen XIII bilgunea egingo da eta, beti bezala, Eskualdea osatzen duten bost udalerriko erretiratuek parte hartzeko aukera izango dute: Audio, Amurrio, Aiara, Artziniega eta Okondo udalerrietatik.

Jardunaldiko egitaraua osatzen duten ekintzak honako hauek dira. Ondo baino hobeto pasatzeko beta eskainiko dizuen esperantzaz, horratz guztiei buruzko zehaztapenak:

- 10:00: Artziniegako santutegi-

ra eta eliz artearen museora bisita.

- 11:00 hamaiketako

- 12:30: Amurrioko likorearen eta bizikletaren museoetara bisita
  - 14:30: El refor jatetxean harreara ofiziala eta bazkaria
  - 16:30: Bazkal osteko dantza eta animazioa
  - 18:30: Jai amaiera
- 60 urte baino gehiago dutenek edo adin hau duten bikotekideek izango dute bertan izena emateko aukera. Horretarako 22 euro sartu beharko dituzte Vital Kutxako 2097-0264-86-0008005886 kontu korrontean eta horrez gain euren datu pertsonalak bertan utzi. Informazio gehiagorako 945 399 122 telefonora deitu.



## **Aurtengo Aste Santurako, Bertso barnetegiaren abentura**

### **Areto dantzen elkartean jaia hilaren 23an Antzokian, Baisalaren eskutik**

Martxoak 23, ostirala, gaueko 22:30etatik aurrera eta audioar Antzokian, Baisalak areto dantzen elkartean jaia antolatuko du. Hitzorduekin bat egiten duten guztiak honako elkarteko dantza taldeen presentiaz gozatzeko aukera izango dute: Castroko "Castro Baila", Galdakaoko "Areto Dantza", Villasana de Menako "TrovaMenesa, Etxebarriko "Etxebaila eta, nola ez, Audiooko Baisala Elkarte. Sergio eta Veronica, elkarteko irakasleak, musika eta animazioaz arduratuko dira. Beti bezala, bertaritzen diren eta dantza egitea atsegin duten guztien artean zozketa egingo da, berdin dio bazkide izan ala ez.

### **Emakumeentzako autodefentsa ikastaroa**

Berdintasun Zerbitzuak adin guztietako emakumeentzako autodefentsa ikastaroa antolatuko du martxoaren 17an eta 18an Granja kiroldegian eta euskaraz zein erdaraz, eskatzaileek hala eskatuta. Ikastaroaren ordutegia honako hau izango da: martxoaren 17an 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara eta martxoaren 18an 10:00etatik 14:00etara igandean. Matrikula doakoa izango da eta izen emateak 94 403 48 50 telefonoan egin beharko dira.

### **Odola emateko zitek aurrera darraite**

Arabako odol emileen elkarteak herritar guztien laguntza eskatu du berriz ere odola ematen jarrai dezaten era behingoagatik ospitaleetako odol erreserbak behera berriz ere egin ez dezaten. Kirurgia interbentzioren bat behar duten horien eta euskal osasun sare guztiaren mesedetan, eman odola: Martxoak 15: Ardantzazar gizarte zentroa Martxoak 19: Gaztela Leongo zentroa Arratsaldeko 16:30etatik 20:00etara

### **Ludoteka zerbitzua berriz ere martxan**

Iragan martxoaren 1etik Kultura Etxeko ludoteka zerbitzua martxan da: udal zerbitzu honetaz baliatu nahi diren herritarrek jakin bezate, ludotekak atek zabalik izango dituela astelehenetik ostegunera 17:00etatik 20:00etara.

### **Arrantza sektorearen errealitatea ardatz Kultura Etxeko "Egun bat arrantzan" erakusketan**

Laudioko Udaleko erakusketa aretoak "Egun bat arrantzan" erakusketa eskainiko du martxoaren 25era bitartean, informazio panelen eta ikus-entzunezkoen bitartez arrantza sektorearen errealitatea ezagutzera emate aldera. Erakusketak atek zabalik izango ditu atsegunetan 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etatik 21:00etara eta larunbatetan 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Sarrera libre eta doakoa.

### **Martxoaren 23tik apirilaren 1era gozatu Lamuza plazan kokatutako liburu azokaz**

Aste Santua dela-eta, apirilaren 11, 12 eta 13a opor-egunak izango dira herriko ikastetxe gehienetan. Aitzitik, guraso gehienak lanean izango dira. Plan txarra ume gizajoenzat... Horrela gauzak, hona hemen umeak hiru egun horiek modu eder, dibertigarri eta aberasgarri iragaritzeko eskaintza: BERTSO-BARNETEGI BAT, Bernedoko aterpetxe paregabean. **Norentzat?** Laudion erroldatu-

tako Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailako ikasleentzat. Leku mugatuak (Laudiorako 32; denetara: 73). Leku guztiak beteko ez balira aukera emango litzaieke beste udalerrietako umei. Ekimen hau, eskualdeko beste udal batzuekin (Aiara, Amurrio, Okondo eta Urduña) eta Arabako Bertsozale Elkartearekin egingo da, lankidetzan. Azken hau izango da ekimenaren garapenaren arduraduna.

**Izen-emateak:** Audio Udaleko Euskara Arloan. **Prezioa:** 40 euro, bidaia, begiraleak, janaria, lojamendua, materiala eta abar barne. **Argibide zehatzago:** Audioko Udaleko Euskara saila. **Irteera:** apirilaren 11n, asteazkena, 10:30ean Audio institutu-tik. **Itzulera:** apirilaren 13an, ostirala, 13:00etan, Audio institutura

## **Patinatzea, mendian ibiltzea, zapatuak sorgintzea edo eta zineaz gozatzea... baina beti ere euskaraz!!**

Euskarak ahaleginak eta bi egiten ditu gurean, norbanakoen ahotatik atera eta kaleetan barrena entzun dadin... horretarako, berriz ere zerbait hitzordu antolatu dituzte, beti ere euskaraz mintzatu gaitzen eta euskarak merezi duen txokoa berreskuratu dezan. Aukeratu gustukoaren duzun hitzordua eta ekin euskaraz mintzatzeari **• Martxoak 17.** Patinatze saioa Gasteizko BAKH (Baskonia Kirol-Hiria) izotz pistan. 17:00-18:30. Irteera: 16:00etan. Bidaia autoak

partekatuz. Sarrera doakoa: Berbalagun programatik ordainduta. Nork bere materiala eraman behar du. Bertan alokatuz gero: 4,50 euro. Ezinbestekoa eskularruak etxetik eramatea. Izena alde aurretik eman behar da udaleko Euskara Arloan edo Berbots-AEKn: [audio\\_berba@aek.org](mailto:audio_berba@aek.org) / 630418295. **• Martxoak 18.** Oxigenoa Euskarari kanpainaren barruan, mendi irteera bat: ARATZ (1.446 m) - OLANO (1.082 m) - LEZE. Audio-

ko ikastetxeetako DBHko ikasleentzat (12-16 urte ggb). Irteera 8:00etan, Audio institutuaren aurrean. **• Martxoak 24.** Sorgin Zapatuak. ARETako Kultura Etxean. 17:30-19:30. 5 urtetik gorakoentzat. Antzerkia "Apika" taldearen eskutik. Jarraian, askaria eta amets-harrapagailuak egiten ikasteko lantegia. Doakoa. **• Martxoak 25.** Zinea euskaraz. "Aita, zonbia naiz". Igandea. 17:30etan. 2 euro.LHUlan

## **Zuzeneko musikak eta musika eskolako jaiak handi egingo ditu martxoaren bigarren hamabostaldiko asteburuak Drumgorri**

Berriz ere kalitatezko zuzeneko musika eta rocka Drumgorri aretoko hitzorduen ardatz izango dira eta jada ohiko bihurtu diren rock musika zale guztien hitzorduez gain, martxoko bigarren hamabostaldi honetan, Drumgorri musika eskolako festak bazter guztiak nahasten saiatuko da barbakoa eta jam sesio izugarri baten bitartez... goza zuzeneko musika: Goza Drumgorri! **-Martxoaren 16an,** Ostirala 23:00etan. Dohainik NYLON (Bilbo) **-Martxoaren 17an,** Larunbata 23:00etan. Dohainik TOBACCO ROAD (Gasteiz)

**-Martxoaren 23an,** Ostirala 23:00etan. Dohainik ELENCO (Logroño) + TIBET (Logroño) **-Martxoaren 24an,** Larunbata 23:00etan. Dohainik ARMA MATER (Logroño) **-Martxoaren 30an,** Ostirala. Dohainik DRUMGORRI MUSIKA

ESKOLAKO FESTA -20:00 - BARBAKOA (eguraldia lagun); JAM SESSION; PIRULO CLINIC TXOU (PIRULO TXOUren eskutik); JAM SESSION **-Martxoaren 31n,** Larunbata 23:00etan. Sarrera 5€PLOWSHARE (Bartzelona)



## **GAZTE INFORMAZIO GUNEA "LAMUZA"**

LAMUZA 13 KALEA  
[infogazte@laudiokoudala.net](mailto:infogazte@laudiokoudala.net)  
ORDUTEGIA: Astelehen, asteazken eta ostiraletan  
16:30etatik 19:30etara

Agiri desberdinak bertan egiteko aukera jarraia



## Laudio Atletismo Klubeko korrikalariak marka guztiak apurtu nahian

Laudio Atletismo klubeko kideak lehen dabil-tza, nork edo nork marka guztiak hautsi behar-rean. Aipatutakoaren adibide garbi dira hu-rrengo honetan laburbiltzen ditugun emaitzak guztiak, klubeko kideak zoriontzeko balioz-zeaz gain, hasitako erronka luze eta aberasgarriari eusten segi dezatela balio dutenak... Zorionak! Laura Oca, Sara Gutierrez eta Siam Robertsonek osatzen duten Laudio Atletismo Klubeko emakume gazteen taldeak, klubaren arteko landen zehar-reko Espainiako txapelketako hamargarren postuari eutsi dio.

Bestalde, Junior kategorian lehiatzen den Ga-razi Larrakoetxea Betés jauzilariak, estalitako pistako Euskadiko txapelketa nagusiko lehen postua lortu zuen, 1,63 metroko jauzia egin on-doren.

Eta bukatzeko, Laudio Atletismo klubeko Anto-nio Peula Morenok, 3000 metroko M-45 kate-goriako lehen postua lortu zuen pista estaliko beterano mailako Euskadiko txapelketan, 9º29'85" denbora egin ostean.

## Laudio Igeriketa klubeko igerilariak geldiezin Arabako eta Euskal Herriko txapelketetan

Markel, Asier Sanchez eta Ibai Duñabeitia gure herriko ordezkari duin izendatu ditzakegu, Ara-bako eta Euskal Herriko igeriketa txapelketetan gutxieneko markak egin ostean.



Markelek Euskal Herriko 100 metro modalitate-ko marka onena bete zuen Arabako txapelketan eta Asier Sanchezek gutxieneko marka lortu zuen 1500 metro libre eta 400 metroko estiloetan, Euskadiko txapelketan parte hartu ahal izateko.

Azkenik Ibai Duñabeitiak, igerilekuetako jaun eta jabe berri izendatu dezakegu hurrengo marka hauek hautsi ostean:

Sorbalda estiloko 100 metroetan eta sorbalda es-tiloko 200 metroetan gutxieneko marka bete ostean Espainiako txapelketan euskal ordezkari gi-sa parte hartzeko aukera lortu du. Zorionak Ibai!

## Sexualitateari buruzko tailerra, esku pilota, paparreko orratzak egiteko edo altxorraren bila jokoak Gaztelekuan

Krisiak gazteengan ere eragina izan du eta ara-zo horretaz ohartu dira Ugarte auzoan kokatu-tako Gaztelekuko arduradunak. Horregatik eta aisialdiaz gozatzeko beste aukera bat dela jakinarazteko hitzordu berriak antolatu dira mar-txoko bigarren hamabostaldirako: guztiak ere gozatu, ikasi, lagun berriak egiteko eta, batez ere sosik gastatu gabe. Hauek dira hitzorduak:

**Martxoak 16:** Sexualitate tailerra

**Martxoak 17:** esku pilota txapelketa Lamuza-ko frontoian (izen emateak 18:00etatik aurrera)

**Martxoak 24:** Paparreko orratzak egiteko tai-lerra.

**Martxoak 30:** "Altxorraren bila" jokoak

## Laudio Top zinematik Oscar sarietako azken altxorak eta euskarazko zine onena dakarkigu

Beste batez, Laudio Top zinematik kalitatezko zinearen aldeko apus-ta egin du martxoaren bigarren hamabostaldian eskainiko diren filmen izenak ikusi eta gero: Emakumeen antzeppen onenari Oscar saria lortu zuen pelikula eta George Clooneyk bideratutako azken arrakastak bere txokoa izango du-te Lan Heziketako Udal Ikaste-

txeko areto nagusian, euskarazko zine onenarekin batera.

**Martxoak 24** LA DAMA DE HIE-RRO (2 € 17:30 eta 20:00 LHUlan)

**Martxoak 25** AITA ZONBIA NAIZ (2 € 17:30 LHUlan)

**Martxoak 31** LOS DESCEN-DIENTES (2 € 17:30 eta 20:00 LHUlan)



## Zumaia, Deba eta Getariako txangoaren bitartez, agurtuko ditugu Hirugarren Adinekoentzako hitzordu kulturalak

2012ko Hirugarren Adinekoen-tzako hitzordu kulturalak agur esango digute. Eta hori gertatu eta datorren urteko hitzorduak prestatzen hasi baino lehen honako bitxi preziatuak utziko diz-gigute: Estatu Batuetako parke nat-uralei buruzko erreportajea, Pe-pa bezala ezaguna den konstitu-zioaren bigarren mendeurrenari buruzko eta Lurraren eboluzioari buruzko bina hitzaldi eta azkenik, Gipuzkoako kostaldeko lekuri-k ederrak bisitatzeko txangoa; bes-teak beste Zumaia eta Euskal Her-riak eman duen moda egile han-dienaren museora bisita: Balen-

ciaga museoa.

**Ostirala, hilak 16:** 17:00etan Kultura Etxeko areto eraberrituan: Erreportajea "VENTANAS AL IN-TERIOR DE LA TIERRA: un recorri-do por los Parques Naturales de los Estados Unidos de América" LUIS ANTONIO PÉREZ DE HERE-DIA biologoaren eskutik

**Astelehena, hilak 19:** 17:30etan Kultura Etxeko areto eraberrituan, hitzaldia: BICENTE-NARIO DE LA CONSTITUCIÓN DE CÁDIZ 1.812. "LA PEPA" RA-MÓN LOZA. Historialariaren es-kutik

**Eguaztena, hilak 21:** 17:30etan

Kultura Etxeko areto eraberrituan, hitzaldia: "EVOLUCIÓN. Ciencia y ficción" Jesús Rodríguez Solórza-no paleontologoaren eskutik.

**Ostirala, hilak 23:** TXANGO:A "HAITZAK-BIZITZA-HISTORIA-PER-TSONAK

\* EDUKIA: Euskal kostaldeko par-ke geologikoa : ZUMAIA-DEBA-MUTRIKU-GETARIA BALENCIAGA museoa (goi mailako joskintza)

\*Bazkaria: LASTUR jatetxean (Lastur-Itziar) Gipuzkoa \* Jesús Rodríguez Solórzanok gidatutako txangoa. Prezioa eta ordutegiak oraindik zehaztu gabe

## Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta antolatutako hitzordu gehiago

Aldarrikatzeek eta dibertsioak bat egingo dute berriz ere gure uda-lerrian, gizon eta emakumeen ar-teko berdintasunari uko egin na-hi dioten guztiei gizarteak eska-tzen duen aldarria entzun deza-tzen. Aukeratu zure eta gozatu:

**Martxoak 15** 18:30 Mursegoren musika emanaldia Kultura Etxean

**Martxoak 16** 18:00 Gazte in-

dependentistek antolatutako "Gazteok eta feminismoa (eus-karaz) mahai ingurua Kultura Etxean

**Martxoak 17** 12:30 Mamiki Batukada feminista herri gunean

**Martxoak 17 eta 18** Zapatuan 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara eta igan-dean 10:00etatik 14:00etara eta

Granja kiroldegian emakumeen-tzako autodefentsa ikastaroa euskaraz zein erdaraz

**Martxoak 20** 18:30 Musika klasikoko kontzertua Kultura Etxean

**Martxoak 22** 18:30 Elikadura eta emakumeari buruzko hitzaldia Elena Jorriñen eskutik Kultura Etxean.

## Laudioarrok 2012ko San Roke jaietarako pregoilarirako hautagaiak proposatzeko aukera izango dugu aurten

Hautagaitza prozesu honetan par-te hartu nahi duten guztiek hu-rrengo honetan aipatutako kupoia bete beharko dute, 2012ko San Ro-ke jaietako pregoilarirako euren

hautagaia eta hautagaitzaren zer-gatiak jarrita. Ondoren Laudioko Udaleko Kultura, Kirolen eta Jaien arloko bulegoetan utzi beharko du-te apirilaren 13a baino lehen. Edo

bestela [www.laudiokoudala.net](http://www.laudiokoudala.net) web guneko "2012ko pregoilaria" puntuan sakatuz gero, erabiltzaile bakoitzak bere hautagaitza egite-ko aukera izango du.

### 2012ko SAN ROKE JAJETARAKO PREGOILARI PROPOSAMENA

Nire ustez, honako hau izan beharko litzateke pregoilari: .....

Honako honegatik: .....

.....  
.....  
.....  
.....  
.....

Kupoia bete eta Laudioko Udaleko Kultura, Kirol eta Jaien arloko bulegoetan entregatu, apirilaren 13a baino lehenago